76

## "AGIRRE TA LEKUBE'TAR JOSEBA ANDONI SARIA" - V'KARREN ALDIRAKO DEIA

### SARIKETA

Ura oroitarazi, aren euskaltzaletasuna gureganatu ta euskera iraunerazi ta biztortzeko asmoz, Agirre ta Lekube'tar Joseba Andoni deritzan saria, boskarrenez antolatzea erabaki dute "Euskal-Kulturaren Alde"'koek. Sari ori norgelagogokoa izango da, ta ona emen sariketa orri buruz zeetasunak:

1) V'karren "Agirre-Saria", iru urte buru emana izan oida. Beraz 1973' garreneko Epaillaren 23'garrenean asi ta 1976'garreneko Epaillaren 22'garren arte, euskeraz argitaratuko dan idazti oberenak irabaziko du sari ori.

2) Idaztiaren gaia idazleak bere gain du.

3) Saria bat bakarra, ta milla dolarekoa izango da.

4) "Euskal-Kulturaren Alde"'ren gain geratzen da epaia ematea. Epaille bakoitzak autarki ixillez emango du bere erabakia. Erdia baño bat geyago lortu dezan idaztiak saria erabaziko du.

5) "Euskal-Kulturaren Alde"'k berak emandako erabakia erabat onartzekoa izango da, ala bearrez, ta eztu izango iñork epai orren aurka gora yoterik.

6) Sari ori ezin zatibana diteke.

7) Orrenbesteko saria irabazteko lain izan liteken idaztirik ezpalego iñori ezin eman lizaioke.

8) Epaia eskualdeka emana izan liteken susmoa erabat kentzeko, sari ori ezin yaso lezake "Euskal-Kulturaren Alde"'ko dan iñork. Edo ta baldin sari au norentzat izan liteken erabaki bitartean, "Euskal-Kulturaren Alde"'ko norbaitek idaztiren bat argitara baleza, dalako ori ezin izan liteke epaille.

9) Epaia garaiz emana izan dedin, idazle bakoitzak bere idaztiaren bi ale igorriko baliskigu, txera onez artuko genituzke. Idazti bat zuzenbide ontara:

10, Bd. d'Alsace-Lorraine - 64100 Bayonne, Laburdi, eta bestea,

48, rue Singer, 75016 Paris, "Euskal-Kulturaren Alde"'ren izenean.

EUSKAL-KULTURAREN ALDE